

Pilota ♦ Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketa eginen dute aurten aurreneko aldiz

Aspe-Asegarce lau t'erdian

Bakoitzak bere lehiaketa du; irabazleak elkarren aurka ariko dira




Ezkerretik eskuinera, Javier Salaberri Aspekoea, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko buru Javier Trigo, Nafarroako Gobernuako kontseilari Calixto Aiesa, Nafarroako Pilota Federazioko presidente Jose Maria Salanueva eta Asegarceko Iñigo Salbidea.

Eduñe Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO Lau t'erdiko Txapelketa antolatu dute aurreneko aldiz Nafarroako Gobernuak eta Asegarce-Altiko eta Aspe enpresek. Larunbatean jarriko da abian, eta finala, berriz, uztailaren 7an jokatu dute, Fermin deuren egunean, Labriten. Enpresa bakoitzeko launa pilotari ariko dira, bi multzotan. Enpresa edo multzo bakoitzeko irabazleek jokatu dute uztailaren 7ko finala.

Txapelketa aurkezteko, Nafarroako Gobernuak kirol arduradunak agertu ziren atzo kazetarien aurrean, Aspe eta Asegarceko buru Javier Salaberri eta Iñigo Salbidearekin batera. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko buru Javier Trigok Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketan bi enpresetako pilotarietako parte har zezaten egingo ahalegina nabarmendu zuten enpresetako arduradunek.

Nafarroako Txapelketan bi enpresetako pilotariak aritzeak, eta finala elkarren aurka jokatzek, hala ere, ez du erran nahi Asegarce eta Asperen arteko tirabirak konponduta daudenik; kazetarietako txapelketako partidu guztiak elkarren aurka joko-



tzeko aukeraz galdetu zieten, «ezinezkoa» dela erantzun zuten: «Bi enpresak aritzeko aukera bakarra bi txapelketa edo multzotan banatzea da; beste lehiaketetan argi geratu da beste aukerarik ez dagoela», azpimarratu zuen Salbidea.

Asegarceko arduradunak erantzun bera eman zuen bere enpresako buruz-buruko txapelketako irabazle Ruben Beloki eta Asperen manomantistako txapeldun Patxi Eugiren arteko partida antolatzeak aukeraz galde-

gin ziotenean: «Orain ezinezkoa da». Salaberri, une honetan garrantzitsuen Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketa dela nabarmenduz erantzun zuen.

Jorge Nagore eta Patxi Eugi buru

Ruben Belokik ez du larunbatean abiatuko den txapelketan parte hartuko; bai, ordea, Patxi Eugi. Salbidea azaldu zituen Asegarceko txapelduna lehiaketatik atzuteko izan dituzten arra-

zioak: «Lau t'erdiko pilotari onenak aukeratu ditugu, eta Beloki ez da horien artean. Txapelketan parte hartzeko prestaketa zehatza beharko luke, eta oraingoa ez da horretarako une egokia».

Asegarceren txapelketan, beraz, lau t'erdiko txapeldun Nagore, Arretxe, Errandonea eta Armendariz ariko dira. Armendariz eta Errandonearen arteko partidarekin hasiko da txapelketa, larunbatean, Cintruénigon. Asegarceren finala, edo, beste modu batera erranda, Nafarroako Txapelketako lehen finalerdia, uztailaren 3an jokatu dute, Tafallan. Asperen txapelketa, berriz, ekainaren 29an, San Adrianen hasi, eta uztailaren 5ean amaituko da, Iruñean. Asperen aldetik, Eugi, Lasa III.a, Olazola I.a eta Esain ariko dira.

IÑIGO SALBIDEA

«Bi enpresak aritzeko aukera bakarra bi txapelketa edo multzotan banatzea da; beste lehiaketetan argi geratu da beste aukerarik ez dagoela»

txokoan

Lehendakari Kopako finalerako pilota aukeraketa gaur, Zarautzen

12:00etan bilduko dira Zarauzko Aritzbalalde frontian gaur Lehendakari Kopako lau finalistak: Asegarce-Altiko Unanue eta Beloki, eta Aspeko Etxaniz eta Zezeaga. Igandean jokatu dute den finalerako pilotak aukeratu dituzte. Final horretarako jaialdia erabaki da: aurretik, Errandonea II.a-Pinedo eta Badiola III.a-Arroyo ariko dira. Lehendakari Kopako Bigarren Mailako finala jaialdi berean jokatzeko aukera bertan behe-gekidu da Aspeko buru Javier Salaberri ezezkia eman diolako proiektu horri. Jaialdiaren maila nabarmen jaitsi da horrela.

Titin III.a eta Mikel Goñi Santanape berriro irekitzeko

Bihar zabalduko dute berri Gernikako Santanape frontoia, eta jaialdi erakargarria antolatu dute: Titin III.a eta Goñi III.a Goñi II.aren eta Lasaren kontra. Mikel Goñik, Eugiren kontrako Asperen finalerdian lesionatu zenetik, jokatzeko duen lehen partidua da. 16:00etan hasiko da inaugurazioa eta 17:30etan jaialdia. Diferentia eman-ge du ETB1ek, 22:30etan.

Patxi Zeberio garaitu nahi dute

Patxi Zeberio bikain ari da aspaldion, eta ibilbide horri eutsi nahiko dio gaur Galarretan. Iriarte izango du lagun atzeko koadroetan, eta Garikoitz Altuna eta Pello Aizpuru kontrario.

gaurko partiduenak

GALARRETA. 16:00.

• Zalakain-Urko / Agirresarobe-Barrenetxe • Zeberio II.a-Iriarte / Altuna II.a-Aizpuru • Altuna I.a-Etxabe / Kalonge-Eizaguirre • Zezea-Imaz / Bitoria-Zandio.

DEPORTIVO. 17:00.

• Zeberio-Ibarra / Goitia-Leunda • Daniel-Juan Pablo / Unda I.a-Rekalde • Urkia-Torre / Insausti-Azelus.

biharko partiduenak

GERNIKA. 17:30.

• Santanape frontoiaren berinaurazkia: Titin III.a-Goñi III.a / Goñi II.a-Lasa III.a.